

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lizarrako Gaiteroen funts dokumentala Nafarroako Artxiboan sartuko da

Ekarpen honek musika ezagunena kontserbatzen, aztertzen, hedatzen eta aldatzen lagunduko du

Osteguna, 2019.eko martxoak 28


Salvador Martínez eta Juan Carlos Doñabeitia gaitzaileek Nafarroako Errege Artxibo Nagusiari eman berri diote Lizarrako Gaiteroak Elkartearen funts dokumentala, Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiboaren programan sartzeko. Ekarpena formula mistoaren bitartez egin da; bertan, batetik, dohaintza eta, bestetik, dokumentuak Nafarroako Artxiboan gordetzea jasotzen dira.

Dohaintzan emandako dokumentazioaren barnean, Zaragozako Nafar Etxeko partiturak eta dokumentuak agertzen dira, era askotakoa, zehazki Pablo Sarasate Banda eta Julian Gayarre Orfeoiarenak, Lizarrako

Gaiteroen diskografia osatzen duten liburu eta soinu eta ikus-entzunezko erregistroekin batera, eta horiek Nafarroako konpositoreei agindutako formatu digitaleko obrak ere bai. Aginduz egindako eta orain dohaintzan emandako konposizioen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Fiesta en Estella (2001), bi gaitarako fantasia sinfonikoa eta Tomás Aragüésen banda, laugarren zatian ezpata-dantza bat duena, edota Lizarrako irudiak (2005) obra, Koldo Pastorrena, Erraldoiak, Los Llanos eta Jurramendiko hegaletan hiru mugimendurekin.

Halaber, nabarmentzeko moduko beste konposizioen artean honako hauek ditugu: Izar (2007), Lizarrako gaita eta J. Vicent Egearen bandarako, ezpata-dantza, arin-arina, jota eta zortzikoa bezalako dantza-aldaerekin, eta Tríptico para Demetrio Romano (2011), Koldo Pastorrena.

Litekeena da interes handieneko dohaintza-zatia Lizarrako Gaiteroen Erreperitorioa izatea (1999ko bilduma); bertan, bi bolumenetan, 75 egileren



Dantzagarrien koadernoak (118. zk.) Pérez de Lazarraga anaiak

hirurehun konposizio jasotzen dira, horietako asko honako hauek bezalako gaita-jotzaile ospetsuen beste erreperitorio batzuetatik hartuak: Moisés Elizaga, Anselmo Elizaga, Manuel Montero, José Pérez de Lazarraga, Evaristo Pérez de Lazarraga, Demetrio Romano edo Julián Romano, eta horrek Lizarrako gaitero-tradizio nabarmenena erakusten du. Dohaintzan emandako erreperitorioan, baita ere, Anselmo Elizagaren (1912) dultzaina-metodoaren piezak ez ezik, Bonifacio Lascuráin eta de Miguel Martínez de Lezearen (1928) bildumak ere agertzen dira.

Bestalde, gordailu-eran emandako dokumentazioan, hogeita hamar koaderno eta hamabi partitura daude, José Pérez de Lazarragaren erreperitoriokoak, Julián Romanoren partitura orijinala barne, Bariaciones obligadas de dulzaina bi dultzaina eta Demetrio semeak transkribatutako bandarako. Hain zuzen ere, 1920 eta 1940 urte arteko dantzatzeko pieza herrikoien bilduma da. Era berean, bandarako 799 partitura jasotzen dira, Iglesias Anaien musika-artxibokoak, 1936. urtea baino lehenagokoak. Horrek esan nahi du gaita-jotzaileak baita ere arduratzen zirela jai eta jolaserako ekitaldi ugaritan musika jotzeko, bandak, errondailak edo boskoteak osatuaz. Halaber, gordailu-eran jasotako dokumentazioan agertzen dira prentsako zatiak eta Lizarrako jaien kartela, Romano gaita-jotzaileen familiakoa (1906-1964).

Azterketa eta hedapena

Lizarrako Gaiteroek nahi bezala, dokumentazio hori guztia, Nafarroako Artxiboan tratamendu teknikorako lanak amaitzen diren une beretik, eskuragarri egongo da materiala aztertzeko, hedatzeko eta lantzeko, gaitak, Nafarroako jai-giroaren eta jarduera sozialaren eta kulturalaren testuinguruan, musikaren herri-izaera adierazteko duen garrantziari erreparatuta, kontuan izanik eman berria dela kontzertu-musikaren mailaraino, izen handiko konpositoreei egindako enkarguen bitartez.

Lizarrako Gaiteroen ekarpenaren ondoren beste batzuk etorriko dira, tartean argazki-artxibo garrantzitsua, Nafarroako Artxiboa dohaintza-emaleekin egun lantzen ari dena.